

OPZABTEA

GURE TXIKIAK - TELEBISTAREN AURREAN

Oraingo gizartean, lehenagoko hurrek izan ez zituzten abagadune eta erraztasunak dituzte gaurkoek, baina baita arriskuak ere. Arazo hauen aurrean, gurasoek gehiago jakiteko premia larrian somatzen dituzte euren buruak. Zenbait kasutan ez al da izaten haurrentzat kaltegarria gurasoen jokaera? «Bego telebistaren aurrean haurra -diote amek-horrela, behintzat, bakean utxiko nau eta». Amak bai bakea, baina pantaila miresgarri horrek liluraturik, ekaitz gorria sor daiteke haurraren arima eta burutxoan.

Jakingarri hauek, Alemanian ezaguna den pedagogo eta sikologo baten liburutik jaso ditut: *KARL AICHER, Kindersorgen - Sorgenkinder*, Miinchen 1971.

Irudia etafilmea

Haurrak gogoko izan ohi ditu irudiak txiki-txikitatik, hauren gehiago jakiteko irrika bizia asetzeko ezin hobeak baitira; bere mundua eta famili-ingurunea batez ere hobeto ezagutzeko oso baliagarri zaizkio. Irakurtzen ikasten duenerako, irudipeko hitzak jarritz, oraindik kilikagarriago, zoragarriago bihurtzen zaio han ikusitakoa: Imajinetan mozkorturik, irudimena hegan asten zaio haurrari, imajinetako gizon-emakumeak eta abereak zernolakoak diren, zer egiten eta egingo duten.

Eskolan ere bizidunekin zuzeneko harremana ezinezkoa

balitzaio, irudiak ernango litzaizkioke. Irud-iak oso baliagarriak dira heziketarako, umearen ezagutze-arloa zabaltzeko berebizikoak baitira. Orduantxe bakarrik egongo da haurra irudi horiek barruan sorreratzeko dizkioten zirrarak bereganatzeko, bere mende ezartzeko prest; eta era berean haiek ordenatu eta lantzeko ere bai. Batzutan, ikusitako irudi hoiak bizi berria emango die haurrak, ahoz-ahoz adierazterakoan nahiz marrazterakoan.

Haurrak, kolore era irudidun aldizkarietan, berak ulertu ezinena zerbait aurkitzen duenean, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Ulertu ez arren, haren sentimena astin-astin eginik uzten dute irudiok. Ulertzen ez duena ezin bada, bereganatu eta ordenatu; beraz, hura baztertu eta arbuia egingo du. Baina hain zuzen ere ulertzen ez duenak nahasketa eta ondorez dakartzio egunez; gauez, berriz, laino beltzak bezala moltzotzen zaizkio ametsetak, zer esan nahi duten ez dakielarik.

Eragin gaiztoagokoa izan ohi da haurrarentzat zinea ikustera sarri-sarri joatea, dena irudipen hutsa izan arren, imajina bizi horietan agertzen dena egi-egia delakoan egoten baita. 10 urte bete arte, gehienetan, haurra ez da filmearen mezua jasotzeko gai. Irudiak barneratu-ala, zirrara nahasgarria sortarazten dio eta ulertu ezik bereganatu ezin dituenek, haren ezpiritua zakarontzirako izango dira, mataza ulertzen haurra noraezean utziz. Pelikula zertaz izan den aita-amak galdetuz gero, erraz konturatuko dira hauek, zein gutxi jasotzen duen, zein gutxi ulertzen duen. Sikologi-gaietan ez dakitenak ere konturatzen dira haurrak nagusiei begiratzen diela; baina ez haiek zer esango zain dagoelako, haien jokabide eta ispiluan begiratzeko baizik. •

Sarritan gaztetxoentzat egokitzen jotzen dira Oesteko filmeetan, nolako ereduak eskaintzen zaizkie? Burrukan Indartsuena dena, hura da nagusi; beste guztiak jo eta garbi uzten dituen, hura da garaile. Hura imitatzea eta haren antzeko izateko gogo berez-berez sortuko zaio haurrari. Zakarkeriazko ikuskizun eta entzunkizunak... adibidez: «Eman gogor!», «Jo eta apurtu, zapuztu!». «jo, jo eta hil!», eta antzerako esamolde latz-garratzak, haur

xume eta xalo batentzat jasan ezinak dira, ikaragarriak. Une horietan hurrek, beren burua babesteko, begirada pantailatik aldentu edo begiak itxi egingo dituzte. Gerora, ikusiare'n ikusiz, ez zaizkie hain gogor egingo. Edozertara ohitzen da bat, baita ikuskizunik ankerrenetara ere. Haurrak, orduan, badaki hori zineko zera dela bakarrik; ez dala egiazkoa. Hala ere, pelikulan zehar, zakarki astindua somatzen du bere burua eta pantailako eguneroko bizitzarekin parekatzen hasten da. Han elkar jotzen, bata-besteei oinazeak ematen, elkarrekin dituzten harreman basati eta gogorak ikusirik, hauxe da berez-berez sortzen zaien gogoeta: «*Horrelaxe da pertsona nagusien bizitza*» Zirrara hauek artegatasunez, larritasunez betetzen dute haren sentimena. Beraz, hortik askatzen ekinahalak egingo ditu. Eta nola askatu? Ba, pantailako umantekin (heroiekin) identifikatuz. Horrela, bere beldurra ankerkeriaz estali eta gainditu uste du. Areago beraindik: Eszena gogor horiei bizi berria emango die berak lagunuen aurren. «Umant» (heroi) .hauek, non triskantzak egingo biktima bila ibili ohi dira...

Haurrei zinemara joatea debekatu eta kito?

Ez, hori ere ez! Haurrentzat filme honak, gazteentzat aproposak badira. Filme onak ikustea ezin debeka genizaioke haurrari; debekupean dauden gauzak «gozoagoak», erakargarriagoak direla, gauza jakina da.

Beraz, debekatzen zaielako horrexegaitik hain zuzen, joan daiteke zinemara ixil-mixilka, eta hori bai dela heziketa desegokia. Hortik oker ere oker goaz. Baina filmeak haurrentzat egokia izan behar du. Txalogarriena, eta haurrarentzat onuragarriena, gurasoak lagun dituela zinemara joatea da. Pelikulan zehar eta amaitu ondoren, zenbait galdera egin beharra izango du; oker ulertutako pasarteren batzuk ere buruan izaten dituzte, eta horiek norbaitek argitzea ezinbestekoa da. Bakarrik joango baltiz ere, gero etxean hango gorabeherak eta bere usteak azaltzeko aukera eman behar litzaioke, puntu ilunak argituz, haren buruan nahasketarik sor ez dadin. Haren eritzi eta usteak entzun

ondoren, pelikularen egiazko kritikatzeko bat egitea ere egoki litzateke. Pelikularen aide onak zeintzuk diren, gehiegizkoak edo okerrak zeintzuk diren argi eta garbi adieraziz gero, haurrari erizpide jatorrak ematen ari gara. Haurrak jakin behar lukena zera da: pantailan ageri den guztia ez dela beti eguneroko bizitzan ematen. Han ikusten duenak, sarritan ez duela zer-ikusirik errealitatearekin. Horrela, haurrak ez du itsu-itsuan irentsiko, hango guztia egia bailitzan.

Oso onuragarriak dira abere eta haur baten arteko adiskidetasuna gaitzat duten pelikulak. Haurrak, gauza batzutan, aberea bere antzekoa dela ikusiko du; adibidez: poza, tristura eta mina sentitzean, maitasunaren beharra, jolaserako gogoia etab. Berdintsu izan ohi dituztela biek; hala ere beste zenbait arlotan gustuz ezberdinak direla. Horrela, abereen mundia hobeto eza-gutuz, izaki guztiak maitatzen eta babesten ikasiko du. Beste lurralde eta kulturetako haurren bizitzaz diharduten pelikulak ere mesedegarriak izan ohi dira, eta erakargarriak txiki-txiki herri guztienganako begirunea lortzeko berebizikoak.

Irrati eta telebista

Azken urteotan teknikaren aurrerakuntzak, makina eta tresneriaren ugaltzea ekarri du. Idaz-makinak, ikuzgailuak, gaur egun ia-ia beharrezkotzat jotzen ditugun tresneri eta haltzariak; hauen artean hor dago teleikusgailua eta irrati ere bai, jakina!

Hauen aide onak ukatzea zentzugabekeria hutsa litzateke. Egoki eta zuhertasunez aukeratutako irrati-telebistaren emankizunak ezin hobekak dira haurraren ikuspegia zabaltzeko, haren jakintza gehitzeko eta irudimen joriaren indarra bideratzeko. Baina aukeratutako gaiak, haurraren adinari dagozkionak izan behar dute. Emankizuna laburra izatea komeni da, eta sekula ere ez gaueko desorduetan. Aide txarra eta arriskutsua ere hor dago eta ez-ikusitako egiteak ez du balio. Irratiak eta telebistak batez ere, goiz-goizetik jartzen ditu haurrak munduko arazo larrien aurrez-aurre, artegatasunean murgildu eraziz. Oraindik haundie-

giak eta gainditu ezinak egiten zaizkien arazo larriok urduritasunez betetzen dute haurra. Ez da ahaztu behar, gainera, irrati-telebistak haurraren konzentrazio-ahalmena eta sormena ahuldu eta gutxitu egiten dutela, eskolan horren ondoriak garbi azaltzen direlarik. Oso-osoa irratiaren menpeko, haren morrontzapean geratzerainoko kasuak gertatzen dira...

Gutxienez ere ondorio galgarri batzuk ezagunak dira. Irratiak zer esango edo eta telebistan zer agertuko luzaro dagoenak, kalte handiak jasango ditu gorputz eta arima edo eta bcre umorean. Ordu luzeak telebistaren aurrean ematen dituzten haurrak ez dira hain onartuak izaten etxean (Amak pozik egongo dira, behar bada, hantxe geldi eta bihurrikeriak egin gabe daudelako.J). Ondorioak hauexek dira: gorputzeko gaitzak jarrera txarreatatik, arretarik eza (adi egon ezina), artegatasuna sortzen dioten ametsak eta urduritasuna. Soinekoan edo zapatan zuloa duenean bezain azkar ez dira konturatzen gurasoak gaitz haueztaz, baina askoz ere sendagaitzagoak dira!

12 urte bete arte, gehienetan, haurrak ezin du jaso, osorik behintzat, hurrenez-hurren agertzen diren irudien mezua. Beraz, irudi ulergaitzak haren adimena moltzotzen dira, mosaiko baten harritxoan antzera eta haurrak ez daki nahasketa izugarri hartan ordena piska bat jartzen. Orduan, ziurtasun barik, noraezean eta urduri jartzen da. Hori egunez; baina gauez ere artega egoten iraingo balu, loa galeraztea dela eta, ondorio galgarriak jasango lituzke. Haurrentzat bereziki diren emankizunetan ere, batzuk zailtasunak izaten dituzte pertsonaien ekintzarren hariarraitzeko; eta beraz, gurasoei galderak egin behar. Orduari, jakina, pertsona nagusiak erantzun egin behar die, artegatasuna baretu eta jakin-mina asetzeko. Hala eta guztiz ere, gaurko gizarte irakinduak ez die baretasunez bizi izateko aukera handirik emango. Haurrak bere gorputzeko indarra eta barruko kemena alperrikako ahaleginetan gal ez ditzan, kontuz ihardun beharrean dira gurasoak; neurritz kanpoko arazorik ez diezaiotela, behintzat, leporatu.

Gizarte jator bat ereiketzea nahi bada, eurei dagokien gi-

roan haurrak pozik eta osasuntsu hezitzetik abiatu behar da.
Haien ezpiritu-bizitza joria eta gizatasunez aberatsa izan dadila.
Hauxe da gai hau aztertzerakoan izan dugun helburu bakarra.

J. Urkiza

BEREIBARTUA

*Argazkiak eg/ten dira eskontzetan Euskal Erri guztian.
Tresnak daukaguz zeuk argazkiak egin dagiguzan.*

*Gure etxea zabalik daukazu era onetan:
astegyirDeten: 9'tik 1'ra ta 4'tik 8'ra.
jac-eguietafn: 9,30'tik 12'ra.*

Arana'tar Sabin kalea
Urrutizkina 673 0424